


ezagutzen al
duzu Donostia?

Martikotxotegi

Martikotxotegi Egiako baserria, Intxaurrendoko poligono berriaren ertz batean egon arren, espropiazioak harrapatu zuen eta honela kirol zelai bat eraikitzeko suntsitu egin zuten. Egiako distritu zaharreko 24. zenbakia zeraman etxe honek, eta auzo honen ekialdean zegoen. Ategorrieta auzunearen gainean, malda gutxiko bizkar batean.

Nondik datorkio izen hau? Gotzon Egiak dioenez, badirudi Ategorrietan bazela «Martin» izena zuen «kotxero» (gardi edo karru gidaria) ofizioko gizona, eta haren etxea izango genuke *Martikotxotegi*. Luis Maria Mujikak, aldiz, zera dio: «Martikotxo», «Martiniko» bezala, Martin izenaren diminutibo bat dela. Dena dela, sortzez Egia auzokoak diren adineko euskaldunek beti *Martikotxotegi* edo *Martikotxei* deitu izan dute etxe hau. Kirol-eraikuntza egin zenean, zoritxarrez, informazio zuzenik ez zuten pertsonak «Matigotxotegi» deitura barregarriarekin bataiatu zuten instalazio berria. Guk, euskaldunok, «makilgoxo» gaztelaniazko «regaliz» delakoari deitzen diogu, eta honela, gure hirian gehiengoa diren gaztelar hizkuntzako pertsonak hitz hau kopiatu egin dute, eta baita desitxuratu ere, «matigocho» hitza sortuz, ziurtatzen dut desitxuraketa «xelebre» honek ez duela ezer ikusi behar paraje horrekin.

Donostiarrok duintasunez zaindu behar dugu gure



Martikotxotegiko eta ez Matigotxotegiko, arren! kirol zelaiak, Egian.



Baserria suntsitu zuten, baina oraindik hor daude Martikotxotegiko baratza ederrak.

ondare kulturala eta, agian asmo txarrik gabe, baina ezjakintasunez ezarritako deitura grotesko hau betiko gune izendegetik ezabatu behar dugu. Michel Grosclaude okzitaniar historialari eta toponimista handiak

honela dio: «kultura baten suntsiketarako borondate guztiak, ondare onomastiko eta toponomastikoaren aldaketa edo desitxuraketarekin hasten dira».

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

La Casa
del Café

Juan Iriondo S.A.
DONOSTIA